



Andoaino  
Udala

## Bide edo leku publikoak publizitatearekin erabiltzeari buruzko ordenantza

## Ordenanza sobre utilización de vias o lugares públicos con publicidad

### Zioen azalpena

Ondare hiritarra eta bere ingurunea kontserbatu eta babestearren, partikularren eskubideak eta betebeharrak nahiz Udalak erabilera eta zerbitzu publikoko ondasunak osasun eta apaindura publikoko egoera onean kontserbatzea bateratuz eta publizitatezko kartel edo hesien instalazioetan hiri estetika zaintzearen, Konstituzioaren 16.1 artikulua aldarrikatzen duen askatasun ideologikoa eta bidenabar hura adierazteko 20.1.a) artikulua jasotzen duen eskubidea bermatzearen, Udalak Ordenantza honen bitartez publizitatezko kartelak, hesiak, pankartak, pintadak eta abar instalatzea arautzeko asmoa du, honen helburua ez delarik erasanda gerta litezkeen eskubide subjektiboak aldatzea, baizik eta eskubide horiek erabiltzeko baldintzen gainean bakarrik diharduelarik.

### Exposicion de motivos

Con el fin de conservar y proteger el patrimonio urbano y su medio, compatibilizando los diversos derechos de los particulares con la obligación de éstos y del Ayuntamiento de conservar los bienes de uso y servicio público en buen estado de salubridad y ornato público, así como para preservar la estética urbana en las instalaciones de carteles o vallas publicitarias, garantizando la libertad ideológica que consagra el art. 16.1 de la Constitución y el correlativo derecho a expresarla que recoge el art. 20. 1.a) de la misma, el Ayuntamiento se ha propuesto la regulación a través de la presente Ordenanza de la instalación de carteles, vallas, pancartas, pintadas, etc. publicitarias, siendo que la misma no pretende modificar los posibles derechos subjetivos afectados, sino que actúa exclusivamente sobre las condiciones de ejercicios de dichos derechos.

### I. TITULUA

#### Xedapen orokorrak

##### 1.- Artikulua: Xedea

Ordenantza honen xedea kartelak, hesiak, pankartak eta bestelako publizitate elementuak fatxada, itxitura, medianeria, murre, poste, farola, zutabe, markesina eta abarretan ezartzeak bete behar dituen baldintzak arautzea da, baitere dagokion udal baimena eskuratzeko jarraitu behar den prozedura.

##### 2.- Artikulua: Aplikazio eremua

“Kartel” edo “publizitate hesiak” bezala ulertuko dira merkatal, kultur, jolas, kirol, gizarte, politika eta abarreko kanpo publizitatezko mezuak ematekoak diren, paper, kartoi edota sendotasun txikiko beste edozein materialen gainean edozein prozeduraren bidez inprimatutako edo pintatutako eta berezko egitura euskarrekin nahiz gabe ezartzen diren iragarkiak.

“Pankarta bezala” ulertuko dira bide publikoan edota egiturazko elementuren bati erantsirik behin behingoz kokaturiko tamaina haundiko publizitate iragarkiak, banderolak eta zintzilarioak.

“Pintada” bezala ulertuko dira murre, pareta, fatxada, espaloi, galtzada edota egiturazko beste edozein elementuren gainean edozein teknika piktoriko erabiliz egiten diren eskuzko inskripzioak.

### TITULO I

#### Disposiciones generales

##### Artículo 1.- Objeto

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de las condiciones que han de cumplir la instalación de carteles, vallas, pancartas y otros elementos publicitarios en fachadas, cerramientos, medianerías, muros, postes, farolas, columnas, marquesinas, etc., así como el procedimiento a seguir para la obtención de la correspondiente licencia municipal.

##### Artículo 2.- Ambito de aplicación

Se entenderá como “carteles” o “vallas publicitarias” los anuncios impresos o pintados, por cualquier procedimiento, sobre papel, cartón o cualquier otro mineral de escasa consistencia, sea cual sea su formato, que se instalen con o sin soporte estructural propio, susceptibles de transmitir mensajes de publicidad exterior, sean de carácter comercial, cultural, recreativo, deportivo, social, político, etc.

Se entenderá como “pancartas”, los anuncios publicitarios de gran tamaño, las banderolas y colgantes situados ocasionalmente en la vía pública o adosados a algún elemento estructural.

Se entenderá como “pintada” las inscripciones manuales que mediante cualquier técnica pictórica, se realicen sobre los muros, paredes, fachadas, aceras, calzadas o sobre cualquier otro elemento estructural.



## Andoaino Udala

Ez dira kartel edo publizitatezko hesizat hartuko.

- a) Eraikuntzan kokatzen diren iharduera desberdinen kanporako informazioa erakusten duten errotuluak, hala nola, pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarteen edota merkatal, industria, lanbide edo zerbitzu iharduereen izenak.
- b) Burutzen ari diren obretan haien ezaugarriak definitzeko ezartzen diren errotuluak.
- c) Eskapateetan edota establezimenduen barruan ezarrita dauden kartelak.
- d) Udal seinalizatzenak.

### 3.- Artikulua:

Debekatuta dago pintadak egitea, edozein lema dutelarik ere, Udalak espreski baimendu eta espazio publikoak berreskuratu edo apaintzea beste helbururik gabe egiten direnak ezik.

## II. TITULUA

### Kokaleku eta publizitate Elementuen baldintzak

### 4.- Artikulua:

Kartelak ezartzeko modua arautzearen hurrengo azpibanaketa egiten da:

- a) Irabazizko ihardueri buruzko publizitate kartelak.
- b) Irabazi asmorik gabe gizarte, kultura, politika eta abar alorretako iharduerak iragartzen dituzten kartelak.

### 5.- Artikulua:

Aurreko artikuluko a) pasartean sartutako kartelak, hau da, merkatal artikuluen, jaialdien, ekitaldi orokorren, lehiaketen, ikastetxeen eta abarren publizitateari buruzkoak, egiturazko euskarria duten publizitate hesi eta paneletan bakarrik ezar daitezke, udal baimena eskuratu ondoren, ezin direlarik beste inon ezarri, hala nola, higiezin, murre, murre txiki, zubi, pareta, hesi, tapia, espaloi, hiri altzateriako elementu eta antzeko beste batzuetan, halaber, Ordenantza honetako 6. artikuluko b) hizkian xedatutakoa aplikagarri zaielarik. Artikulu honetan adierazitako beteko ez balitz, kale garbikuntzako udal lantaldeak berehala kenduko ditu ezarritako kartelak eta zigorra ezarriko da dagokion espediente ireki ondoren.

No se consideraran carteles o vallas de publicidad:

- a) Los rótulos que manifiesten información al exterior de las diversas actividades que se ubican en la edificación, tales como la denominación social de personas físicas o jurídicas o el ejercicio de la actividad mercantil, industrial, profesional o de servicios.
- b) Los rótulos que se colocan en las obras en curso de ejecución definiendo características de las mismas.
- c) Los carteles que estén situados en los escaparates o colocados en el interior de los establecimientos.
- d) Las señalizaciones municipales.

### Artículo 3.-

Queda prohibida la realización de pintadas, independientemente del lema que contengan, salvo aquéllas expresamente autorizadas por el Ayuntamiento y que se realicen con el único fin de recuperar o adornar espacios públicos.

## TITULO II

### Condiciones de emplazamiento y de los elementos publicitarios

### Artículo 4.-

En orden a la regulación del modo de instalación de los carteles, se efectúa la siguiente subdivisión:

- a) Carteles publicitarios de actividades lucrativas.
- b) Carteles anunciadores de actividades de índole social, cultural, político, etc, sin afán de lucro.

### Artículo 5.-

Los carteles incluidos dentro del apartado a) del precedente artículo, referidos a publicidad de artículos comerciales, de celebración de festivales, actuaciones en general, competiciones, publicidad sobre centros de enseñanza, etc., solamente podrán ser colocados en las vallas y paneles publicitarios privados con soporte estructural, previa autorización municipal, sin que puedan ser colocados en lugar otro alguno, tales como inmuebles, muros, muretes, puentes, paredes, vallas, tapias, aceras, elementos de mobiliario urbano y otros análogos, siéndoles, asimismo, de aplicación lo dispuesto en el art. 6, letra b) de la presente Ordenanza. En caso de incumplimiento de lo señalado en el presente artículo, se procederá, por parte de la Brigada Municipal de Limpieza Viaria, a la retirada inmediata de los carteles instalados; y a la imposición de sanción, previa instrucción del



## Andoaino Udala

Baldin eta egiturazko euskarriak, publizitate pribatuko hesiak edo panelak, aginduzko udal baimena badaukate, kartelak ezartzeko orduan ez da hura esijituko materiala ezartzen den bakoitzean, Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira, beti ere.

### 6. Artikulua.-

4. Artikuluko b) pasartean aipatzen diren irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura, politika eta abarretako iharduerak iragartzen dituzten kartelak udal baimenaren beharrik gabe ezar daitezke, Ordenantza honetako 16.2 artikuluan aurrikusitakoaren kalterik gabe, eta baldintza hauek betetzen badituzte, beti ere:

- a) Itsasteko kola erabili gabe ezarri beharko dira.
- b) Guztiz debekatuta dago hirigintzako arauetan eraikin berezi edo interes publikoko konjuntio arkitektoniko-urbanistiko bezala jasotzen diren fatxadetan edozein instalazio egitea, baitere Udaletxean, Kultur Etxean, Elizetan, Ikastetxeetan, Frontoietan, eta abarretan, hiri altzateriako elementuetan era jabego pribatuetan, baimena ez badute behintzat.
- c) Propagandazko materiala kendu beharko da hura ezarri eta luze jota 15 egunetako epea amaiturik.

### 7. Artikulua.-

Karteldegien instalazioetako diseinu eta eraikuntzek orohar, hala nola, eusteko egiturazko elementuek eta markoek, segurtasun eta kalitate baldintza nahikoak bete beharko dituzte.

### 8. Artikulua.-

Karteldegiek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Obretako hesietan, bai solairu berriko eraikuntzetan bai berreraikuntzetan, karteldegia ez du obra hesiaren lerrokadura plano gaindituko.
- Itxita dauden orubeetan karteldegia ez du fatxada planoaren gainetik 0,30 m. gaindituko.
- Goialdeak 6 m.-tako altuera ez gainditzea eta behealdea gutxienez zortitik 2 metrotara egotea.

correspondiente expediente.

Para el supuesto de que el soporte estructural, valla o panel publicitario privado, cuente ya con la preceptiva autorización municipal, en el momento de colocación de carteles, no se exigirá la misma por cada acto de colocación material, siempre que cumplan con las condiciones impuestas en la presente Ordenanza.

### Artículo 6.-

Los carteles anunciadores de actividades de índole social, cultural, político, etc., sin afán de lucro, referidos en el apartado b) del art. 4, podrán instalarse, sin necesidad de autorización municipal, sin perjuicio de lo previsto en el art. 16.2 de la presente Ordenanza, y siempre que cumplan las siguientes condiciones:

- a) Deberán colocarse sin utilizar cola de pegar.
- b) Queda prohibida terminantemente toda instalación en las fachadas de edificios singulares o conjuntos arquitectónico-urbanísticos de interés público que se recojan como tales en las normas urbanísticas, en la Casa Consistorial, Casa de Cultura, Iglesias, Colegios, Frontones, etc., en los elementos de mobiliario urbano y en las propiedades privadas salvo que cuenten con autorización.
- c) Deberán proceder a la retirada del material propagandístico transcurrido un plazo máximo de 15 días desde su colocación.

### Artículo 7.-

Los diseños y construcciones de las instalaciones de carteleras en todo su conjunto, tanto los elementos estructurales de sustentación y marcos, deberán reunir las suficientes condiciones de seguridad y calidad.

### Artículo 8.-

Las carteleras deberán cumplir las siguientes condiciones:

- En las vallas de obras, tanto en edificios de construcción de nueva planta o reconstrucción de edificios, la cartelera no sobrepasará el plano de alineación de valla de obra.
- En los solares con cerramiento no excederá de 0,30 m. la cartelera sobre el plano de la fachada.
- Que la parte superior no sobrepase los 6 m. de altura y la parte inferior diste al menos 2 m. del suelo

### Artículo 9.-



## Andoingo Udala

### 9. Artikulua.-

“Pankartak” ezartzea bide publikotik ikusteko moduko edozein tokitan egin daiteke, eta hauteskunde politikoen garaian eta/edo herri edo tradiziozko jaietan -testuak jaiaren zioari buruzko aipamena egin behar duelarik- bakarrik baimenduko da, edota Udalak espreski adierazten dituen egoeretan.

### 10. Artikulua.-

“Pankartek” hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

- Pankartak beharrezko zuloak edukiko ditu haizearen eragina murriztearren. Edozein kasutan, zulatutako azalera, gutxienez, pankartaren %25ekoa izango da.
- Ezartzeko altuera minimoa, punturik beheenetik neurtuta, bost metrotakoa izango da pankartak galtzada gurutzatzen duenean eta hiru metrotakoa espaloi, pasealeku eta oinezkoentzako beste zona batzuetan.
- Farolei eta bide publikoko egiturazko beste elementu batzuei lotutako pankartak puntu bakar batean soilik ezarriko dira farola edo elementu bakoitzeko.
- Ez da baimenduko pankartak arbolei edo antzeko elementuei lotzea.
- Pankartak epea amaitu eta hurrengo egunean kenduko dituzte interesatuek, edota ezartzen direnetik 15 egunetako epean, eta kenduko ez balituzte, kaleko garbikuntza lantaldeak kenduko ditu, haien kargura, exekuzio subsidiarioko prozeduraren bitartean.

### 11. Artikulua.-

“Pankartek” baimen eskaerari dagokion propaganda bakarrik eduki dezakete, bestelako publizitaterik sartu gabe. Haiek ezartzeko baimena eskatzerakoan edukia eta neurriak, non ezarri nahi diren eta zenbat denboraz konstarazi beharko dira.

### 12. Artikulua.-

Kanpo nahiz barne argiteriazko prozeduren bitartez edota higiduraz horniturik osoki edo partzialki egindako publizitate instalazioak adierazitako kokalekuetan baimenduko dira, gainera industria, merkatal edo zerbitzu erabilera baimenduta daudenean.

Instalazio hauek ez dituzte hauek sortu beharko:

- a) Ikusmenaren itsutzeta, nekea edo eragozpenak.

La colocación de “pancartas”, en cualquier lugar visible desde la vía pública, solamente se autorizará en período de elecciones políticas y/o en fiestas populares o tradicionales –debiendo hacer alusión el texto al motivo festivo-, o en situaciones que expresamente se señalen por el Ayuntamiento.

### Artículo 10.-

Las “pancartas” deberán cumplir las siguientes condiciones:

- La superficie de la pancarta tendrá la perforación suficiente para poder aminorar el efecto del viento. En cualquier caso, la superficie perforada será, como mínimo, del 25% de la pancarta.
- La altura mínima de colocación, medida en el punto más bajo, será de 5 metros cuando la pancarta atraviese la calzada, y de 3 metros en aceras, paseos y otras zonas peatonales.
- Las pancartas sujetas a farolas u otros elementos estructurales de la vía pública se fijarán exclusivamente en único punto por farola o elemento.
- No se autorizará la sujeción de pancartas a árboles u otros elementos análogos.
- Las pancartas serán retiradas por los/as interesados/as el día inmediato siguiente al de su caducidad, o en el plazo de 15 días a contar desde la fecha de su instalación, y en el supuesto de que no lo hicieran la retirada la realizará la Brigada de Limpieza Viaria, con cargo a los/as primeras, a través del procedimiento de ejecución subsidiaria.

### Artículo 11.-

Las “pancartas” solamente podrán contener propaganda objeto de la correspondiente solicitud de autorización, sin incluir clase otra alguna de publicidad. En la solicitud de autorización para instalarlas deberá hacerse constar su contenido y medidas, lugares donde se pretende llevar a cabo la instalación y su duración.

### Artículo 12.-

Las instalaciones publicitarias realizadas total o parcialmente por procedimientos internos o externos de iluminación o dotados de movimiento, se autorizarán en los emplazamientos señalados, en los que además esté permitido el uso industrial, comercial o de servicio.

Estas instalaciones no deberán:

- a) Producir deslumbramiento, fatiga o molestias



## Andoingo Udala

- b) Trafikoko argizko seinaleekin konfunditzera eraman.
- c) Ikusgarritasun ona galerazi.
- b) Inducir a confusión con señales luminosas de tráfico.
- c) Impedir la perfecta visibilidad.

Edozein kasutan, instalazioek kokatuta dauden higiezinako hiri finketako argien edo ikuspegien mugapena sortzen dutenean edo eragozpenak bertako okupatzaileei, ezinbesteko baldintza da erasandakoek mugapen edo eragozpen horiek agiri fedemalearen bidez egiaztatzea.

“Kartelera” kanpo argiteriazko elementuez horniturik dagoenetan, horiek markoaren goiko ertzean ezarrita egon behar dute eta “karteldeg”ko planoaren gaineko gehienezko irtenak ezingo du 0,50 m. gainditu.

En todo caso, cuando las instalaciones produzcan limitación de las luces o las vistas de las fincas urbanas del inmueble en que estén situadas o molestias a sus ocupantes, es requisito indispensable acreditar con documento fehaciente la aceptación por los/as afectados/as de dichas limitaciones o molestias.

En los supuestos en que la “cartelera” esté dotada de elementos externos de iluminación, éstos deberán estar colocados en el borde superior del marco, y su saliente máximo sobre el plano de la “cartelera” no podrá exceder de 0,50 m.

### 13. Artikulua.-

Propagandak eta publizitateak begirunea izango dute pertsonen duintasunarekiko Konstituzioaren 14. Artikuluan ezarritakoaren arabera inolako diskriminaziorik ezin dutelarik eduki

### Artículo 13.-

La propaganda y publicidad serán respetuosas con la dignidad de las personas, sin que puedan contener discriminación alguna conforme a lo establecido en el art. 14 de la Constitución.

## III. TITULUA

### Baimenak emateko prozedura

### 14. Artikulua.-

Lurzoruaren eta Hiri Antolaketazko Errejimenari buruzko Legeko 178. Artikulua eta Hirigintza Disziplinazko Erregelamenduko 1. Artikulua ezartzen duenaren arabera, publizitate kartelak, pankartak eta hesiak ezarri ahal izateko aurrez udal baimena beharko da. Ordenantza honetako 5.2, 6 eta 16.2 Artikuluetan aurrikusitakoa kontutan hartuta.

### 15. Artikulua.-

Baimena eskuratzeko prozedura interesatuak eskatuko du, eta horrek Udal Administrazioari idazkia zuzenduko dio, bertan Administrazio Prozedura Legeko 69. Artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak egongo direlarik.

Eskaria beste pertsona, elkarte edo enpresa baten izenean edo ordezkartizan egiten denean, eskarian egiaztatutako ordezkartiza hori espreski konstarazi beharko da.

### 16. Artikulua.-

Baimen eskariarekin batera, nahi eta nahiz ez, hurrengo agiriak aurkeztuko dira:

## TITULO III

### Procedimiento de concesion de licencias

### Artículo 14.-

Al amparo de lo que establece el art. 178 de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, y art. 1 del Reglamento de Disciplina Urbanística, los carteles, pancartas y vallas publicitarias necesitarán para su instalación la previa licencia municipal, teniendo en cuenta lo previsto en los arts. 5.2, 6 y 16.2 de la presente Ordenanza.

### Artículo 15.-

El procedimiento para la obtención de la licencia se instará por el/la interesado/a, el/la cual dirigirá escrito a la Administración Municipal, en el que se contendrán todos los requisitos que establece el art. 69 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

Cuando la petición se haga en nombre y representación de otra persona, asociación o empresa, deberá hacerse constar expresamente en la solicitud tal representación acreditada.

### Artículo 16.-

A la petición de licencia se adjuntarán, necesariamente, los siguientes documentos:



## Andoingo Udala

- 1) Irabaziko iharduerei buruzko eta egiturazko euskarriarekiko publizitate kartelak direnean:
    - a) Ezarri beharreko elementuaren edo elementuen memoria azaltzailea, hesiaren neurriak, muntatzeko sistema eta zehazki non kokatuko den zehaztuz, haizearen eraginari egokitutako egiturazko elementuaren justifikazio teknikoarekin batera.
    - b) Publizitate hesiaren edo elementuaren solairu, altzatu eta sekzioko 1/50 eskalako planoak, bertan hesi osoaren proiektzioak, bai zoruaren gainetik bai parametro bertikalen gainetik, zehazki isladatuko direlarik.
    - c) Instalazioaren aurrekontua.
    - d) 18 x 24 zm.-tako argazkia, publizitate hesia edo elementua kokatu nahi den lekuari eta bere inguruneari buruzkoa.
    - e) Publizitate hesia edo elementua ezarri nahi den lur edo eraikinaren jabearen idatzizko baimena.
    - f) Hesia ezartzearen ondorioz hirugarrenei sor diezazkieketen kalteak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru poliza.
  - 2) Udal jabetzako publizitate paneletan ezarri nahi diren irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura, politika eta abar alorreko iharduerak iragartzen dituzten kartelak direnean, aginduzko baimena edukitzeaz gain, gordailu bat utzi beharko da berme gisa, baimena lortzeko kasurako, eta Udalak haien erabilera egokiaz eta baimena eman unean zeuden egoerara itzultzeaz erantzuteko nahikotzat jotzen duen zenbatekoaz. Bermearen itzulketa Udal Zerbitzu Teknikoen aldeko txostenarekin dagokion espedientea instruitzen denean egingo da.
1. Cuando se trate de carteles publicitarios de actividades lucrativas y con soporte estructural:
    - a) Memoria explicativa del elemento o elementos a instalar, especificando dimensiones, sistema de montaje y lugar exacto donde vaya a ubicarse la valla, con justificación técnica del elemento estructural, requerido a la acción del viento.
    - b) Plano a escala 1/50 de la valla o elemento publicitario en planta, alzado y sección, en que se puedan reflejar exactamente las proyecciones, tanto sobre el suelo como sobre paramentos verticales, de totalidad de la valla.
    - c) Presupuesto de la instalación.
    - d) Fotografía de 18 x 24 cm. del punto donde se pretende instalar la valla o elemento publicitario y su entorno.
    - e) Autorización por escrito del/de la propietario/a del terreno o edificio sobre el que se pretende instalar la valla o elemento publicitario.
    - f) Póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra los posibles daños a terceros que puedan producir como consecuencia de la instalación de la valla.
    - g)
  2. Cuando se trate de carteles anunciadores de actividades de índole social, cultural, político, etc. sin afán de lucro, que se pretendan instalar en los paneles publicitarios de propiedad municipal, además de contar con la preceptiva autorización, se deberá efectuar depósito en concepto de garantía, para el supuesto que se obtenga la autorización, y en la cuantía que el Ayuntamiento considere suficiente para responder del correcto uso de los mismos y de su reposición al estado en que se encontraban al momento de concederse la autorización. La devolución de la misma se hará una vez instruido el correspondiente expediente con informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales.

Bultzatzaileek edota partehartzaileek udal panel horiek behar bezala erabili ez badituzte Udalak fidantza galtzea erabakiko du, interesatuari alde aurretik entzunik, eta sortuko lirakeen gastuak estaltzeko kopuru nahikoan, eta fidantza aipatutako erantzukizunak estaltzeko adinakoa ez balitz, Udalak aldea kobratuko du bultzatzaileeen eta gainerako erantzuleen ondarearen gainean exekutatzuz, indarrean dagoen bilketa legerian ezarritakoaren arabera.

Para el supuesto de que los/as promotores/as o las personas que de hecho participen en su realización no hayan hecho correcto uso de tales paneles municipales, el Ayuntamiento procederá a acordar la pérdida de la fianza, previa audiencia del/de la interesado/a, y en cuantía suficiente para cubrir los gastos que se originasen, siendo que cuando la fianza no fuera suficiente para cubrir las citadas responsabilidades, el Ayuntamiento procederá al cobro de la diferencia mediante ejecución sobre el patrimonio del/de la promotor/a o promotores/as, y demás responsables,



## Andoingo Udala

Udal baimenak, edozein kasutan, udal paneletako erakusketaren iraupena eta egoki eritzitako xehetasun edo baldintzaren berezi guztiak adieraziko ditu, Ordenantza honetan agindutako moduan.

### 17. Artikulua.-

Baimen ukatze orok zioztatua behar du izan.

Baimen eskariak ukatuko dira ordenantza honetan xedatutakoari aurka egiten diotenean eta, halaber, proposatutako instalazioarekin ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoaren ikusgarritasuna edo segurtasunari kalte edo enbarazu egiten zaionean, edota instalazio horrek aplikagarriak diren Hirigintza Arauetan xedatutakoari aurka egiten dionean.

## IV. TITULUA

### Arau haustekak

### 18. Artikulua.-

Ordenantza honetako artikuluetan aurrikusitakoari aurka egitea indarrean dagoen Administrazio Prozedura Legeko VI. Tituluko 2. Kapituluan ezarritako prozeduraren arabera zigortuko da, apirilaren 18.ko 781/86 E.D.L. aren 59. Artikuluan xedatutako zigorrak aplikatuko direlarik, eta horretaz gain kartelak eta/edo pankartak berehala kendu eta pintadak borratu egingo dira.

### 19. Artikulua.-

Bere garaian udal subentzioak ukatzeko arrazoi nahikoa izango da Ordenantza honetan adierazitakoa ez betetzea.

### 20. Artikulua.-

Hutsegiteen erantzule eskarian bultzatzaile bezala azaltzen direnak izango dira, eta subsidiarioki, edota udal baimena beharrezkoa ez denean, haiek egiten dituztenak.

### Xedapen iragankorra

Ordenantza hau indarrean sartzean dagokion udal lizentzia ez duten merkatal izaerako publizitate hesiek beren egoera erregularizatu beharko dute, hau indarrean sartzen denetik bi hilabeteko epean udal

con arreglo a lo establecido en la vigente legislación recaudatoria.

La autorización municipal expresará, en todo caso, la duración de la exposición en los paneles municipales y cuantas otras especificaciones o condicionamientos particulares estime oportunos, en los términos de lo preceptuado en esta Ordenanza.

### Artículo 17.-

Toda denegación de licencia, deberá ser motivada.

Se denegarán las solicitudes de licencia cuando contradigan lo dispuesto en la presente Ordenanza, y, asimismo, cuando con la instalación propuesta se perjudique o comprometa la visibilidad o seguridad del tráfico rodado o de los viandantes, o cuando tal instalación contravenga lo dispuesto en las Normas Urbanísticas aplicables.

## TITULO IV

### De las infracciones

### Artículo 18.-

La contravención de lo prevenido en los artículos de la presente Ordenanza será sancionada, conforme al procedimiento establecido en el Capítulo 2º del Título VI de la vigente Ley de Procedimiento Administrativo, siendo aplicables las sanciones dispuestas en el art. 59 del R.D.L. 781/86 de 18 de abril, además de procederse a la retirada inmediata de carteles y/o pancartas y borrado de pintadas.

### Artículo 19.-

Será causa suficiente para la denegación, en su momento, de subvenciones municipales, el incumplimiento de lo señalado en la presente Ordenanza.

### Artículo 20.-

Serán responsables de las infracciones quienes figuren como promotor/a o promotores/as en la instancia de solicitud, y, subsidiariamente, o cuando no sea necesaria autorización municipal, los/as realizadores/as de las mismas.

### Disposicion transitoria

Las vallas publicitarias de carácter comercial que no dispongan de la correspondiente licencia municipal a la entrada en vigor de la presente Ordenanza, deberán regularizar su situación solicitando licencia



## Andoingo Udala

---

baimena eskatuz, bestela interesatuei eskatuko zaie borondatez haiek kendu edo desmontatzeko, eta uko eginez gero, exekuzio subsidiarioko prozedurari jarraituz.

municipal en el plazo de 2 meses a contar de la entrada en vigor de la misma, procediéndose en caso contrario, a requerir a los/as interesados/as para que procedan voluntariamente a quitar o desmontar las mismas, siguiéndose, para el caso de negativa, el procedimiento de ejecución subsidiaria.

### **Azken xedapena**

Ordenantza hau, Udal Batzarreak 1990eko ekainaren 12ko ohizko bileran onartua, apirilaren 2ko 7/85 Oinarrietako Legearen 70.2 Artikuluan aurrikusitakoaren arabera eta indarrean jarraituko du Udalak aldatzea edo derogatzea erabakitzen duen arte

### **Disposicion final**

La presente Ordenanza, aprobada definitivamente por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria de fecha 12 de junio de 1990, estará en vigor conforme a lo previsto en el art. 70.2 de la Ley de Bases 7/85, de 2 de abril, y permanecerá en vigor hasta que el Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación.